

Abolizioa eskatzen duten legeak



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Etxeko langileak gainontzeko langileekin parekatzen dituen legea egiteko asmo dagoela txalotu zuten Madrilén, Espainiako Parlamentuan. Han zeuden langileek esan zutenenez, urteetako borroka aldarrikatzeko jo zituzten txaloak. Erabakia oraingoz konpromiso bat da, lege bihurtzeko bide luzea egin behar duena. Eta lege bihurtuta ere, ongi dakite borrokan jarraitu beharko dutela etxeko lanetan egoera latzenetan daudenengana iristeko.

Txaloak entzun ziren ere prostituzioarekin amaitzeko lege abolizionistari bide eman zitzaionean. Bazuten zer txalotu proposamenaren egileek, garaipena zelako egitasmoari bide ematea. Uleretzen dut ere legearen sokakoek urratsa txalo artean hartzea, posizioen lehiak eztabaida politikoak baino indar gehiago duenean, nork irabazi delako kontua.

Txaloak txalo, erabaki hauek ekarriko dutena da garrantzitsuena, eta Atzerriartasun legeak indarrean jarraitzen badu, ezer gutxi edo ezer ez. Paperik gabe lan egiten duten etxeko langileek eskubiderik gabe jarraituko dute. Eta legea ez da arazoa izango proxenetentzat, paperik gabeko emakumeen premiak eta babes faltak berdin jarraituko badu.

Faltan bota dut diskurtso abolizionista etxe barruko langile *internen* figura onartezinaren aurrean. Gehiegizkoa egiten zait, prostituzioaren gaian bezala ez dudalako lekuri topatzen nire kontraesan, kezka eta zalantzetarako. Baina argi dut marra gorriak badirela, eta errespetatzea lortuko badugu, langileon topagune izan behar direla. Atzerriartasun legea baliatzea langileak mugarik gabe zapaltzeko errazegi bortxatzen den marra gorria da, Gipuzkoako ostalaritzako patronalari galdetzea besterik ez dago. Legearen abolizioa, honetan ez dago beste aukerarik. ●



Ezkerraren garaipen historikoa Kolonbian

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Itun Historikoa koalizioiko buruak atzean utzi du Rodolfo Hernández enpresaria, aurrekaririk gabeko garaipenean: sekula boto gehien lortu duen presidente bilakatu da Gustavo Petro. Munduko hogei herrialderik biolentoenetako bat izateaz gain, AEBen eta bere politika neoliberalen ikuspegitik azken hamarkadetan berebiziko garrantzia izan duen herrialdea da Kolonbia.

Gustavo Petro aukeratu dute Kolonbiako presidente ekainaren 19an egin diren hauteskunde presidentzialen bigarren itzulian, botoen %50 baino gehiagorekin. Itun Historikoa izeneko koalizio ezkertiarreko liderrak, zehazki, botoen %50,69 lortu ditu, botoen %94,57 zenbatuta. Uribismoak itxaropena zuen Rodolfo Hernández enpresariak irabaziko zuela, baina botoen %47,04 eskuratu du. Honenbestez, mugarría jarri dute munduan indarkeria-maila handieneko bat pairatzen duen herrialdearen historian. Sekula ez zuen ezkerreko hautagai batek irabazi presidentetza.

“Kolonbia eraldatzeko agindu historikoa da gaurko garaipena. Duintasunagatik, justizia sozialagatik eta ingurumen justiziagatik, gure askatasunagatik. Osotasun eta gardentasun konpromisoa hartzen dugu. Bizitzaren aldeko mandatuia izango da”, adierazi du Francia Márquez presidenteordeak.

“Gaurkoa herriarentzat jai eguna da. Ospa dadila lehen garaipen herrikoia. Aberriaren bihotzean gainezka egiten duen alaitasun horrek arindu ditzala pairatutako hainbeste sufrimendu. Garaipen hau Jainkoarentzat, Herriarentzat eta bere historiarentzat. Gaurkoa kale eta plazen eguna da”, esan du Petrok sare sozialetan.

Petroren programak eredu ekonomikoa errotik aldatzea proposatzen du, nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioaren bultzadan oinarrituta, desberdintasunari aurre egin ahal izateko nekazaritza-erreforma egin ondoren. Kolonbian, lurren erdia baino gehiago %2 pribilegiatu batzuen esku dago.

Hauteskunde-egunean Petroren alderdiko bi militante eta buruzagi sozial hil dituzte Guapi eta El Patía udalerrietan, Cauca departamenduan.

Emaitzak jakin berrikan dozenaka milaka lagun kalera atera dira Kolonbia osoan aldaketa politikoa ospatzera. ●